

erwin ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**INTERNATIONAL
DAY**

2021/2022






COVID-19

- **Begiratu arretaz helmugako herrialdeko osasun egoera**
- **Aseguruak derrigorrez estali behar du → NHBko web orria**
- **Erosi bidai txartelak baliogabetze aseguruarekin**

BERRIA: 3 mugikortasun aukera

- 1) MUGIKORTASUN FISIKOA soilik**
- 2) Mugikortasun konbinatua → MUGIKORTASUN BIRTUALA + MUGIKORTASUN FISIKOA**
- 3) MUGIKORTASUN BIRTUALA soilik**





COVID-19

- **BERRIA: MUGIKORTASUN KONBINATUA**

Mugikortasun birtuala: helmugako edo jatorrizko herrialdean → dirua helmugako herrialdera iristean egunetik jasoko da eta bertan egon arte

Mugikortasun fisikoa: gutxiengo iraupena:

→ **ikasketarako: 3 hilabete**

→ **Praktiketako: 2 hilabete**

Hasierako ziurtagiria: zehaztu beharrekoak:

→ **Mugikortasun fisiko eta birtualaren hasiera data**

→ **Non egiten den mugikortasun fisikoa**



GORDE: egin dituzuen gastu guztien ziurtagiri eta fakturak:

Alokairu kontratuak, bidai txartelak etab.

Kontuan izan beharreko informazioa

- **Baldintza orokorrak**
- **Hizkuntza baldintzak**
- **Mugak**
- **Irakasgaien aintzatespena**
- **Alderdi ekonomikoa**
- **Errektoreordetzaren aholku orokorrak**
- **Helmugan den unibertsitateko web guneko informazioa**



Oso garrantzitsua

- **INFORMA ZAITEZ nazioarteko edozein mugikortasun programetan parte hartzeko eskaera egin **aurretik****
- **Kontsultatzeko bi iturri nagusi:**
 - ✓ **Zure ikastegiko Nazioarteko Harremanetarako koordinatzailea (galdetu nor den Idazkaritzan)**
 - ✓ **Nazioarteko Harremanen Bulegoaren web orrialdean:**
[http:// www.ehu.es/es/web/nazioarteko-harremanak](http://www.ehu.es/es/web/nazioarteko-harremanak)



VERY IMPORTANT

Oso garrantzitsua

- **IRAKURRI ARRETA HANDIZ** aukeratu duzun programari buruzko informazioa.
- Arreta berezia eskaini plaza bat lortzeko bete behar dituzun **baldintzei**.
- Eskaera egin aurretik, **EGIAZTATU** interesatzen zaizkizun harrerako unibertsitateetan **zure titulazioko ikasketak ematen dituztela** (ez da beti hala izaten). Kontsultatu zure egutegi akademikoa eta eskainitako plazen iraupena (lauhileko bat edo ikasturte osoa).
- Eskaera egin aurretik, **ARRETA BEREZIA** eskaini hizkuntza baldintzei.
- Egiaztatu ea bekarik badagokizun.

Baldintzak



- **Baldintza orokorrak:**
Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetza (UPV/EHUko ikasle GUZTIEI aplikatu dakieke)
- **Baldintza espezifikokoak:**
Ikastegia (murriztaileagoak izan daitezke; INOIZ EZ permisiboagoak)


Baldintzak

- **Eskaera egiteko unean 2. mailan matrikulatuta egotea.**
- **UPV/EHU nahienez kreditu kopuru hauek matrikulatuta edukitzea, egonaldiaren arabera:**
 - a.- 3 hileko egonaldietarako, gutxienez 15 kreditu**
 - b.- 5 hileko egonaldietarako, gutxienez 30 kreditu**
 - c.- ikasturte osoko egonaldietarako, gutxienez 60 kreditu.**



Hizkuntza eskakizuna

- **Eskaera egin aurretik **KONTUAN IZAN** hizkuntza baldintzak. Kasu askotan, era bakigarriak izaten dira hautaketa egiterakoan.**
- **Ikastegi bakoitzak hautaketa egiteko bere baldintzak ezar ditzake.**
- **Helmugako unibertsitate bakoitzak ikasleak aukeratzeko bere arauak ezartzen ditu. Garrantzitsua da arau horiek ezagutzea helmuga jakin bat eskatu aurretik.**
- **Hizkuntza ezagutzea ez da formalitate hutsa; helmugako herrialdean integratzen laguntzen du.**



Mugak

- UPV/EHUK 4 mugikortasun programa kudeatzen ditu. **Programetako 2tan parte ahal izango da gehienez titulu bakoitzeko, ikasturte desberdinetan.**
- Ziklo bakoitzean, **gehienez 12 hilabete Erasmus mugikortasun programetan (Erasmus praktikak barne).**
- Helmugako unibertsitateko egonaldiaren gehienezko iraupena **ikasturte batekoa** da.
- Egonaldi bakarra ikasturte bakoitzeko (posible da Erasmus ikasketak + Erasmus praktikak egitea).
- 2 mugikortasun egin daitezke Latinoamerika eta Beste Norakoak programetan, **baina titulu desberdinetan.**

VERY IMPORTANT

Betebeharrak

- **Zu zeu** arduratu behar zara helmugako unibertsitatean onartu izateko kudeaketaz.
- Unibertsitate bakoitzak **onarpen eskaerak aurkezteko (batzuetan online) ezarrita dituen epeak ezagutu beharko dituzu**, unibertsitate askok ez baitute epez kanpo bidalitako eskaerarik onartzen.
- Mugikortasun plaza bat esleitzeak **EZ du esan nahi helmugako unibertsitateak onartu zaituenik**.
- **Zu zeu arduratu** behar zara helmugako unibertsitatean egiten duzun egonaldirako ostatuaren kudeaketaz.

Hitzarmen akademikoa

- **Aintzatespena** **Learning Agreement** deritzon hitzarmenaren arabera egiten da.
- **Learning Agreement-a**

ikasleak

+

jatorriko erakundeak

+

helmugako erakundeak

adostu eta sinatu behar duzue UPV/EHU
Dashboar-ean.



Hitzarmen akademikoa

- **Alde batetik, unibertsitate horretan egingo diren irakasgaiak eta kredituak eta, bestetik, UPV/EHUko ikasketa planean dagozkien kredituak barne hartuko ditu.**
- **Dokumentu horrek ezin izango ditu inola ere UPV/EHUⁿ dagoeneko "gaindituta" edo "gutxiegi" kalifikazioa jaso duten irakasgaiak barne hartu, eta irakasgai horiek ezin izango dira helmugako unibertsitatean eginiko beste batzuekin aintzatetsi.**
- **"Aurkezteke" kalifikazioa duten irakasgaiak egin ahal izango dira (alegia, matrikulatuta bai baina azterketarik egin gabe dituzunak).**
- **Beharrezkoa denean titulazioa lortzeko baino kreditu gehiago matrikulatu ahal izango dira, beti ikastegiko baimena izanda.**



Beste betebehar batzuk

- **Onartutako egonaldian, trukearen baitan matrikulatutako kredituen %50 gainditzea gutxienez.**
- **Helmugako ikastegian ezarritako datan hasia; bertaratu ezean, mugikortasunari uko egin diozula ulertuko da.**
- **Egonaldiaren datak edo mugikortasuna egiteko lauhilekoa aldatu nahi bada, eta aldaketa horrek eskaintako iraupena aldatzea badakar, Nazioarteko Harremanetako Bulegoaren (NHBren) eta ikastegiko koordinatzailearen oniritzia beharko da, eskaera hori egiteko arrazoiak aurkeztu ondoren.**



Beste betebegar batzuk

- **Laguntza ekonomiko guztia jaso ahal izateko:**
- **Egonaldia amaitu bezain laster Amaierako ziurtagiria edo Certificate of Attendance izenekoak aurkeztu.**
- **OLS betea izatea.**
- **Erasmus galdetegia erantzun izana.**



Alde ekonomikoa

- **Mugikortasuna** = inbertsioa (denbora, ahalegina eta dirua) → Bekek ez dituzte egonaldiaren gastu guztiak barne hartzen
- Beka batzuk mugikortasuna hasi eta aste, edo hilabete, batzuk **beranduago** jasotzen dira.
- Helmugako **bizi maila eta bidaiako gastuak**: norakoa hautatzeko faktore garrantzitsua da.
- **Erasmus+**: nahitaezkoa da Europako Osasun Txartela eskuratzea, osasun estaldura izateko.
- Norako guztietarako, **asegurua behar da** (egiaztagiriaren kopia eraman behar da Learning Agreement-a sinatu ahal izatkeo). Unibertsitate batzuk garestiagoa izan daitekeen aseguru propioa eskatzen dute → begiratu taulan!



Errekotreordetzaren aholku orokorrak

- **Informatu ondo** deialdiari buruz; ez sinetsi esaten dizuten guztia. Iturrietara jo eta, behar izanez gero, galdetu.
- **Jarri harremanetan** zure ikastegiko mugikortasun koordinatzailearekin.
- **Egiaztatu** interesatzen zaizkizun norakoetan zure titulazioko ikasketak ematen dituztela.
- **Hadi egon** mugikortasun eta beka **eskaerak egiteko epeei**.
- **Mugikortasunak hainbat betebehar** dakartza: prozesuaren erantzukizuna zure gain har ezazu.

Errekotreordetzaren aholku orokorrak

- Zaindu zure **espediente**a: mugikortasun batean parte hartu ahal izateko bidea emango dizu.
- **Hobetu hizkuntzak**: beste hizkuntza batean ikastea zaila da.
- **Malgua izan**: bidaiatzeak milaka abentura eta atsekaberen bat edo beste ekartzen ditu.
- **GOZATU**: atzerrian ikastea pribilegio bat da, aprobetxa ezazu aukera hau!
- **ikasle@ehu.eus helbide elektronikoa erabili beharko duzu Errektoreordetzarekin harremanetan jartzeko. Erabiltzen ez baduzu, desbidera ezazu pertsonalera!**

📍 UPV/EHU » Nazioarteko Harremanak

Nazioarteko Harremanak

Nortzuk gara

- » Aurkezpena
- » Unibertsitatearen datu-orria
- » Zerbitzuen karta
- » Iradokizunak eta eskaerak

UPV/EHUko ikasleak

- » Sicie Ezohizko Deialdia 20-21
- » Erasmus+
- » UPV/EHU-AL eta Beste Norakoak
- » SICUE
- » Arautegia
- » Nazioarteko Mugikortasuna - Gomendioak

Nazioarteko Harremanak

Nortzuk gara

- » Aurkezpena
- » Unibertsitatearen datu-orria
- » Zerbitzuen karta
- » Iradokizunak eta eskaerak

UPV/EHUko ikasleak

- » Sicie Ezohizko Deialdia 20-21
- » Erasmus+
- » UPV/EHU-AL eta Beste Norakoak
- » SICUE
- » Arautegia
- » Nazioarteko Mugikortasuna - Gomendioak
- » Diru-laguntzak
- » Praktiak atzerrian
- » Nazioarteko Sakontze Aipamena
- » Course on Intercultural Competences
- » Hizkuntza gaitasunaren akreditazioak

Ikasle bisitariak

- » Mugikortasun programak

Irakasleak

- » Mugikortasun Deialdiak

INTERNATIONAL DAY 2020

2021-2022 ikasturterako mugikortasun
Programei buruzko informazio saioa

COVID-19 SEPIEREN KOMUNIKAZIOAK

COVID-19 SEPIEren komunikazioak

COVID-19-AZKEN BERRIAK 2020/21 MUGIKORTASUNAK ERASMUS AMERIKA LATINA/BESTE NORAKOAK

COVID-19: Azken berriak



EHUwelcome app

Eskerrik asko!

Galderarik?

